Laudio Llodio

ALKATETZA
Udal-buruzagitza
Tlf.: 94 403 48 08 / Fax.: 94 403 47 51

ALCALDÍA
Presidencia
areasocial@laudiokoudala.net

Herriko Plaza
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)
www.laudiokoudala.net

LAUDIOKO 2014KO JAIETAKO PREGOIA – SAN ROKE MUSIKA ELKARTEA

**AGURRA**

Arrasti on denoi eta ONGI ETORRI!

Alkate Jauna, zinegotziak, Laudioko auzokideak, arrotzak, hemen zaudetenei agur bero bat baita ez daudenei ere, era berezi batean. Ongi etorri hain gertu dauden eta itxaroten ari garen egunak iragartzen dizkigun San Roke jaietarako hitzaurre honetara

Ruperto Urkijoren hitzak ere nahiko izango lirateke, dena den:

> “Agintariei gure agur beroa,
> sotil eta zintzoa, bihotzez eta adeitsuki,
> gure agurra, alai eta formalak
> arrotzei eta orokorrean ibar osoari.
> Denok espero dugun eguna urratzen doa...”

Aldez aurretik, hain gertu ditugun jaien hasiera gure esku uzteagatik laudioarrei eta Udalbatzari eskerrak eman nahi dizkizuegu. Herriko jaiak, non bandak bere sorreratik eta gaur egunera arte aktiboki parte hartu baitu.

Geure burua laudioartzat dugunok, Laudioko jaiei hasiera emateak, beste sentsazio batzuekin ezin erka daitekeen harrotasunez eta ohorez betetzen gaitu. Egia da, musikariok jendearen aurrean aritzeko esperientzia handia dugula, sentipenak musika instrumentuaren bitartez adierazteari dagokionean; baina, halaber, egia ere bada sentipen berberak hitzaren bitartez islatu behar ditugunean biluzik sentitzen garela. Beraz, oraingo betebehar hau gurera ekarriko dugu eta orain dela mende bat baino gehiagotik hona egin den bezala, musika bitartekari izango dugu Laudioko jaiei hasiera emateko. Pregoi honen musikak laudioarren eta jai hauetan zeharreko bisitari izango ditugunen bihotzetan eragina izan dezala espero dugu, eta txalapartaren soinuak jaien hasieraren berri eman dezala, entzuten duten guztiek parte har dezaten.

Herri honen parte izatearen harrotasuna aldarrikatzera gatoz, laudioarrak izatearen harrotasuna baita orain dela mende bat baino gehiagotik hasitako ibilbideari eusteko eta jarraitzeko arduraren harrotasuna

PREGON DE LAS FIESTAS DE LAUDIO 2014 – AGRUPACION MUSICAL SAN ROQUE

**AGURRA**

¡Arrastion denoi eta ONGI ETORRI! ¡Buenas tardes a todas y todos, BIENVENIDOS!

Sr Alcalde, concejales, vecinos y vecinas de Laudio, forasteros, saludos a todos los presentes y un especial recuerdo a los ausentes. Bienvenidos a este acto prólogo de las fiestas de San Roque que nos anuncia la inminente llegada de unas fechas muy esperadas para todos los laudioarras.

Aunque también hubieran bastado las palabras de Ruperto Urkijo:

> “Nuestro Saludo a las autoridades,
> noble y sincero, respetuoso y cordial
> nuestro saludo, alegres y formales
> a forasteros y al valle en general.
> Ya apunta el día por todos esperado...”

Antes que nada dar las gracias a los laudioarras y a la Corporación Municipal por ofrecernos la oportunidad de dar inicio a nuestras fiestas más esperadas. Unas fiestas en las que la banda ha participado activamente desde su fundación.

Para todo aquel que se siente laudioarra el hacer la llamada a la fiesta es un orgullo y un honor poco comparable a otras sensaciones. Es cierto que los músicos tenemos muchas tablas a la hora de actuar delante de un público cuando se trata de expresar sentimientos con un instrumento musical, pero también es cierto, que cuando se trata de expresar esos mismos sentimientos con la palabra nos encontramos desnudos, así que básicamente haremos de bocineros de llamada a la fiesta con nuestra música, que es de todos los laudioarras desde hace más de un siglo. Esperamos que las notas de la música de este pregón impregnen los corazones de los laudioarras y visitantes durante estas jornadas festivas y que el sonido de la txalaparta anuncie por fin la fiesta para que los que la oigan se sumen a ella.

Venimos aquí a reivindicar el orgullo de pertenencia a un pueblo, de ser llodianos, de tener la responsabilidad de mantener una herencia que comenzó hace más de un siglo y que continúa sin interrupción a pesar de todas las dificultades, que las ha habido y muchas en todas las

aldarrikatzera gatoz ere. Jakina da ibilbide honetan hainbat oztopo izan dugula garai ezberdinetan, baina aurrera jarraitzeko asmoa dugu.

Eta gainera Herriko plazan aldarrikatzen dugu, laudioarren bilgunean, jaien erdigunean. Egun hauetan zehar hainbat dantzaldi ospatzen zen bilgune honetan, eta "Lauri", "Llodio", "Estanis" eta beste hainbat tabernaren terrazak pozez gainezka zegoen jendez betetzen ziren. Batzuk gustuko zuten abestia itxaroten zuten dantzatzeari ekiteko, beste batzuk gustuko zuten mutil edo neskari dantzatzeko eskaera noiz egin behatzen eta pentsatzen, momenturik aproposena jaietan egitea zelarik. Plaza honetan zezenketak, bigantxak, entzierroak… egiten ziren, Kasinoa hor ere zegoen… Plaza honetan ere musika bandak bere dantzagarriak jotzeko kiosko bat zuen, berez GAUR zaudeten batzuk elkartzeko balio izan zuena.

Plaza honetan musika banda eta bere musika akademiaren lokala egon zen garai batean. Sasoi hoberenak izan ziren. Beste sasoi batzuetan egindako ekintzen ondorioz (bai irakaskuntza alorrean bai musika banda baten ekintzetan) eta lortutako emaitzengatik gaur egun hemen jarraitzen dugula esan dezakegu, okertzeko bat ere beldurrik gabe.

Herri honetako ondare arkitektonikoaren zati handi bat galdu dugula argi dago, baina gure kultur ondarea ez galtzeko borrokatu behar dugu, gure ohitura onak ez galtzeko. Plaza honetan geratzen diren ehunka urteko harriek gure iraganaren lekuko isilak dira eta erne samar egoten bagara izandako iraganaldiaz egiten digute berba. Oraindik ere Eusebio Garayoren txistuaren soinua entzun dezakegu, Musika bandaren dantzagarrien soinuak, Arloteek kantaturiko abestiak. Aspaldiko harriok hitz egiten digute eta, ohiturak eguneratuz, ekanduak berreskuratuz eta egungo bizimoduetara moldatuz eta berriztatuz, etorkizun bat izatera bultzatzen gaituzte; hori bai bihotzez eta ahaleginez egin dezagun, bide batez kalitateaz egiteko. Hauxe da Musika bandaren eskutik lortu nahi duguna: "*Herria*", hain zuzen.

Pregoi honen irakurketak, herri honetako partaide izatearen harrotasuna sentiaraztea oso garrantzitsua dela uste dugu; azken finean, jaiotzean gureganatzen dugun oinordetza jasotzea eta onartzea da.

Musika bandaren hastapenetatik orain arte izandako kideok borroka eta gainditze asmorako sentimendu atabikoa lotzen gaituela ematen du; gure herriarekiko eta publikoarekiko konpromisoa. Herrian genuen bihotzeko hainbat eraikin galdu dugu denbora pasa ahala, arbasoek

épocas.

Además lo hacemos aquí en la Herriko Plaza, donde estaba el ágora, el centro de la fiesta, aquí se celebraban grandes verbenas durante estos días, aquí se llenaban de gente y alborozo esas terrazas del Lauri, del LLodio,del Estanis … Unos esperando que sonara su canción preferida para bailar, otros escudriñando y pensando cuando sería el mejor momento para pedir baile a ese chico o esa chica que anhelaba y no encontraba el momento, y el mejor momento era en estas fiestas. En esta plaza se hacían corridas de toros, vaquillas, pasaban los encierros, aquí estaba el Casino.También había un kiosco de música donde la Banda interpretaba esos bailables, que ayudaron a unir a muchos de los que HOY estáis aquí.

En esta plaza, una vez estuvo el local de la banda y de su academia de música, Aquellos fueron los mejores años. Casi podemos asegurar, sin temor a equivocarnos que estamos aquí ahora, porque durante un tiempo tuvimos la oportunidad de realizar nuestras actividades, tanto las de enseñanza como las propias de una banda en este lugar tan apropiado.

Sin duda hemos perdido gran parte de nuestro patrimonio arquitectónico, pero tenemos que luchar para no perder nuestro acervo cultural, nuestras buenas costumbres. Las pocas piedras centenarias que quedan en esta plaza, si ponemos un poco de atención, nos hablan de un pasado. Todavía podemos escuchar el txistu de Eusebio Garayo, los sones de los bailables de la banda, esas canciones entonadas por los Arlotes. Esas piedras nos hablan y nos animan a tener un futuro, actualizar las costumbres, recuperar las tradiciones y renovarlas, modernizarlas y sobre todo a hacerlas desde el corazón y también desde el esfuerzo para que también lo hagamos con calidad. Eso es lo que queremos hacer desde la banda: "Herria... Pueblo".

Creemos importante que esta lectura del pregón haga que nos sintamos orgullosos de pertenecer a nuestro pueblo, recoger una herencia que aceptamos al nacer.

Es como si a todos los laudioarras que han pasado por la banda a lo largo de su historia, nos uniera una especie de sentimiento atávico de lucha y superación, un compromiso con nuestro pueblo y con nuestro público. Hemos perdido edificios entrañables de nuestro pueblo, hemos perdido demasiada herencia dejada por nuestros

Laudio Llodio

ALKATETZA
Udal-buruzagitza
Tlf.: 94 403 48 08 / Fax.: 94 403 47 51

ALCALDÍA
Presidencia
areasocial@laudiokoudala.net

Herriko Plaza
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)
www.laudiokoudala.net

utzitako oinordetza anitza galdu dugu, iraganean galdutako jai erreferentzi gutxi ditugu gaur egun, nahiz eta batzuentzat baliteke urrun geratzea. Baina erreferentzia moduan eta nortasun adierazgarri bezala herri bateko kidea dela baieztatzeko aktibo bat sendotu behar dugu: “HERRIKO AUZOKIDEAK”.

Pregoi honen xedea laudioar guztiak zein herri honetako jaiez gozatu nahi dituzten pertsona guztiak deitzea denez, guk geuk, Done Erroke Musika Elkarteak; edo bestela esanda Laudioko Musika bandak; azken finean, zuen musika bandak, gure jai hauek izaera zabal batean gozatzeko ahalegina egitea eskatzen dizuegu: garai bateko eta gaur egungo erara, gazte zein zahar modura, baina beti alaitsu, harmoniaz eta musika askorekin.

Momentu honetatik bertatik aurrera jaietan murgiltzeko eskatzen dizuegu, datozen jardunaldiak gogotsu goza ditzagun. Geuk ere geurea egingo dugu. Mende bat baino gehiago daramagu zeregin horretan eta horrela jarraituko dugu aurten ere. Ruperto Urkijo, gure lagun maitearen hitz batzuk gogoratzea nahikoa dugu gure barrenean nolabaiteko kilima batzuk sentitzeko:

“HERRIA PLAZAN TXALOKATZEN ENTZUTEN ZAIO
SUZIRI, MUSIKA ETA DANBOLINEN ARTEAN
ETA HERRIA PLAZAN ABESTEN ENTZUTEN ZAIO
GORA SAN ROKE ETA SAN ROKEZAR!”

“Suziria”

antecesores, quizá nos queden pocos referentes de un pasado festivo que a algunos les puede parecer demasiado lejano. Pero aún estamos a tiempo de consolidar un activo que debe servir de referencia y signo de identidad para afirmar su condición de pertenencia a un pueblo: “SU GENTE“

Y como este pregón tiene la función de llamar a todos los laudioarras y a los que quieran venir a participar en las fiestas, nosotros, la Agrupación Musical San Roque, la Banda de Música de Laudio, vuestra banda, os pedimos que hagamos un esfuerzo por disfrutarlas con un espíritu abierto: a lo antiguo y a lo moderno, a lo joven y a lo viejo, pero siempre con alegría, armonía y mucha música.

Os pedimos que nos enchufemos a la fiesta desde ya, desde este mismo momento. Carguemos las pilas con la energía necesaria para disfrutar de estas jornadas venideras. Nosotros pondremos nuestro granito de arena como llevamos haciéndolo desde hace más de un siglo. Basta recordar unas palabras de nuestro querido Ruperto para que ya nos entre un cosquilleo en el estómago:

“ Y AL PUEBLO EN LA PLAZA SE LE OYE APLAUDIR
ENTRE COHETES MUSICA Y TAMBORIL
Y AL PUEBLO EN LA PLAZA SE LE OYE CANTAR
¡QUE VIVA SAN ROQUE Y SAN ROQUEZAR¡”

“El cohete”

Laudio Llodio

ALKATETZA
Udal-buruzagitza
Tlf.: 94 403 48 08 / Fax.: 94 403 47 51

ALCALDÍA
Presidencia
areasocial@laudiokoudala.net

Herriko Plaza
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)
www.laudiokoudala.net

## MUSIKA BANDAREN HISTORIA IRAGANA

Musika bandaren historia 1903. urtean hasi zen, momentu hartan Crescencio Tipular alkatea izanik. Honek Damaso Solauni udalerriko musika banda bat sortzeko agindu zion. Baina badirudi 1898 urtean udalarekin nolabaiteko lotura zuen musika banda edo txaranga bazegoela, eta Doroteo Lafuentek zuzentzen zuen.

1922. urtean Damaso Solaunek zuzendari kargua utzi zuen eta Balbino de la Torrek hartu zuen 1928. urtera arte.

Ondoren Miguel Solaunek ("Miguelito"), lehen zuzendariaren semeak, zuzendaritza hartu zuen.

1956ko maiatzaren 10ean Miguelito Solaun mezatatik ateratzen ari zela hil egin zen, eta ondorioz Felix Garcíak hartu zuen zuzendaritza. Garcíak Solaunen hiletan zuzendu zuen banda, elizatik hilerriraino, eta ekintza hau urte askotan zehar ezaguna izan zen Laudion.

1961. urtera arte Felix García izan zen zuzendari bere lehenengo etapan. Urte horretan Gobernu Ministerioak, Udalen Musika Bandetako Zuzendarien Agindu bat eman zuen eta toki-administrazioetako Zuzendaritza Orokorrak Marcelino de Miguel Extremiana, karrerako militarra, zuzendari jarri zuen. Militar honen zuzendaritzapean izan zuen bandak 1973ko apirilaren 27ra arte eta orduan, tamalez, udal titulartasuna galdu zuen.

Garai hartan Udal Banda izan zenak bere jarduerarekin jarraitu ahal izateko den dena aurka bazuen ere, 1973ko abenduaren 19an “Laudioko Musika Elkartea” sortu zen hainbat musikazale menderaezini esker. Elkarte honen burua Felix García izan zen eta beste kide batzuei esker gaur egun Musika bandaren inguruan hitz egin dezakegu: Alejandro Navarro ("Bartolo"), Felix Adrián, Gregorio Villa ("Goyo"), Jose Luis Montalban ("Pepin") eta Emilio Jimenez.

1978. urtean musika bandak izena aldatu zuen eta hortik aurrera *“Done Erroke Musika Elkartea”* izan zen.

Hasieratik lanaren emaitzak ikusi ziren, musikari gehiago sartu ziren eta musika akademia bat sortu zuten.

## UN POCO DE HISTORIA DE LA BANDA PASADO

Esta bonita historia comienza el año 1903 en el que siendo alcalde Crescencio Tipular le encarga a Dámaso Solaún la creación de una banda municipal, aunque ya en el año 1898 encontramos una banda de música o más bien charanga con relación con el ayuntamiento y dirigida por Doroteo Lafuente.

En 1922 Dámaso Solaún deja de ser director y es Balbino de la Torre el que está a cargo de la banda hasta 1928.

A Balbino de la Torre le sucede Miguel Solaún ("Miguelito"), hijo del primer director de la Banda.

El 10 de mayo de 1956 muere Miguelito Solaún cuando salía de misa y es Félix García quién coge el mando de la banda y dirige en el entierro del anterior director desde la iglesia hasta el cementerio en un acto que será recordado durante mucho tiempo en Laudio.

Hasta 1961 nos encontramos en la dirección a Félix García en su primera etapa en ese cargo. En 1961 el Ministerio de Gobernación dictó una orden de Directores de Bandas municipales y la Dirección General de Administraciones locales resolvió el cargo de director a favor de Marcelino de Miguel Extremiama, que era militar de carrera. Con este director se llega hasta el 27 de abril de 1973 en el que desgraciadamente la banda pierde su titularidad municipal.

Aunque todo estaba en contra para que la que había sido Banda Municipal continuara su actividad, el 19 de diciembre de 1973 se constituye gracias a unos irreductibles enamorados de la música la “Asociación Musical de Llodio”. Estos socios fundadores que hicieron posible que hoy estemos hablando de la banda eran, con Félix García a la cabeza, los siguientes: Alejandro Navarro ("Bartolo"), Félix Adrián, Gregorio Villa ("Goyo"), José Luis Montalbán ("Pepín") y Emilio Jiménez.

En 1978 la banda cambia de nombre y se pasa a llamar *“Asociación Musical San Roque”*.

Enseguida empezaron a ver los frutos de su trabajo, aumentó el número de músicos, se puso en marcha una nueva academia para la enseñanza de la música con el objetivo de garantizar el relevo generacional y además formaron un grupo de txistularis, germen de los que

Laudio Llodio
ALKATETZA
Udal-buruzagitza
Tlf.: 94 403 48 08 / Fax.: 94 403 47 51
ALCALDÍA
Presidencia
areasocial@laudiokoudala.net
Herriko Plaza
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)
www.laudiokoudala.net

Akademiaren xedea aurrerantzean ordezkatzeko belaunaldi berriak sortzearena izan zen. Horretaz aparte, txistulari talde bat sortu zuen, gaur egungo txistulari taldeen (Lankaietako Lagunak eta Ekin Joleak) jatorria izanik. 1982. urtean bere jarduera errekonozitu zen eta balore kulturalen hedapenean elkarte esanguratsuenari *Ventanal* aldizkariak zuen "Carlos Larrea" saria "*Done Erroke Musika Elkarteari"* eman zitzaion.

Hortik aurrera Musika banda kanpoaldetik deitua izaten hasi zen. Donostiako Boulevardean kontzertu bat eman zuen; Bilboko Musika Banden Lehiaketan hartu zuen parte lau urtetan zehar; baita Gasteizen ere, non afinazio saria jaso baitzuen. Mendizorrotzako eraiki berri zuten harmailaren inaugurazioan parte hartu zuen eta Arrasaten kontzertu bat eman zuen. Zugaztietako jaietan hainbat alditan jo zuten. Sopuertan, Galdakaon, Arrigorriagan, Plentzian, Bermeon eta Trapagaranen ere jo zuten. 1985. urtean Lermako Udalak (Burgos) RTVEn bidez zuzenean emango zuten hango zezenketa batean jotzeko deitu zuten. Momentu hartan gure musika bandak telebista bidezko lehenengo agerraldia izan zuen, baina ez azkena…

Musika banda egoera onean zegoen eta ondorioz garai hartan udala gidatzeko ardura zutenek jakin bazekiten une gozo hura Musika bandaren kideen lan esfortzuari esker lortu zela. Honela, bada, modu batez edo bestez egindako lana saritu beharko zela erabaki zuten eta kontratua hobetu zuten. Hamar urtetan zehar eman beharreko baldintza-agiri onargarria sinatu zen, eta beste klausula batzuen artean urtero KPIaren berrikustea sinatu zen. Udalarekin harreman ona eman zen eta musika aldetik oso urte onak izan ziren, berez emandako baldintzen ondorioz musika jardueretan ahalegin bereziak eman zirelarik, halako Elkarte baten oinarrizko beharrizanak eskatzen dituen moduan.

1980. urtean Pablo Gorostiaga alkateak zuzenduriko udalbatzak, musika bandaren sorreraren 75. urteurrenaren herri omenaldia antolatzeko ardura AZIAK kultur taldearen esku utzi zuen. Guretzat oso hunkigarria izan zen eta omenaldi hartan nabaritu genuen elkartasuna beti eskertuko dugu.

1983. urtean izugarrizko zoritxarra izan genuen. Gure herriak jasan zuen uholdearen ondorioz, markesaren jauregiko kapera zaharrean kokatutako musika bandaren lokalean zeuden partiturak eta instrumentuak urak eraman zituen. Felix Garcíak eta Eliseo Tudanca gogoangarriak hainbeste esfortzu eta maitasunez prestaturik zituzten Ruperto Urkijoren hainbat obraren

existen en la actualidad (Lankaietako Lagunak y Ekin Joleak). En 1982 esta labor es reconocida y se entrega a la "*Agrupación Musical San Roque"* el premio "Carlos Larrea" que otorga la revista *Ventanal* al grupo musical más distinguido en la difusión de los valores culturales.

Es en esta etapa cuando la Banda comienza a ser requerida desde el exterior. Viaja a Donostia a dar un concierto en el Boulevard; participa cuatro años consecutivos en el Certamen de Bandas de Bilbao; también en Vitoria, donde obtiene el premio de afinación Se participa en la inauguración de la nueva grada de Mendizorrotza y se da un concierto en Mondragón. También se participa en diversas ocasiones en las fiestas de la Arboleda. Se toca en diversos pueblos como Sopuerta, Galdakao, Arrigorriaga, Plentzia, Bermeo y San Salvador del Valle (Trápaga). En 1985, El Ayuntamiento de Lerma (Burgos) les llama para actuar en una corrida de toros que será televisada en directo por RTVE, en la que será la primera aparición en directo por televisión de nuestra banda, pero no la última…

Como la Banda estaba en un buen momento, los rectores municipales conscientes de que esta buena marcha era debida al esfuerzo que hacían sus componentes, decidieron que había que premiar este trabajo con una mejora del contrato. Se redactó un pliego para 10 años con unas condiciones bastante aceptables, que incluía una cláusula de revisión del IPC cada año. Esta estabilidad en las relaciones con el ayuntamiento coincidieron con unos buenos años en el aspecto musical y no fue una casualidad, pues esta estabilidad, unida a la tranquilidad, posibilitó que se dedicaran esfuerzos en exclusiva a la actividad musical, siendo esto esencial para una agrupación de estas características…

En 1980 la corporación presidida por Pablo Gorostiaga encargó al grupo cultural AZIAK la organización de un homenaje popular para celebrar el 75 aniversario de la fundación de la banda. Aunque suene sentimental a nosotros nos tocó la fibra y nunca hemos dejado de agradecer este apoyo.

En 1983 ocurrió una gran desgracia, las terribles inundaciones que padeció nuestro pueblo se llevaron para siempre las partituras y los instrumentos que se encontraban en el local de la banda, sito en la antigua capilla del palacio del marqués. También se perdieron gran parte de los arreglos de obras de Ruperto Urkijo que Félix García y el bueno de Eliseo Tudanca habían hecho con tanto esfuerzo y cariño.

En 1987 fallece Félix García, el que durante tantos

moldaketak ur eta lokatzaren anabasan galdu ziren.

1987. urtean Felix García, hainbeste urtetan musika bandaren *"alma mater"* izan zena hil zen, oso musika banda gazte bat eta oso atarramentu ederra ematen zuen musika akademia bat utzi zituelarik.

1987-1992 tarte horretan Jose Luis Montalbán izan zen musika bandaren zuzendaria, eta Pedro Ignacio Adrián zuzendariordea. Garai honetan, Arloteak eta Santa Luzia abesbatzarekin batera, disko bat grabatu zen Ruperto Urkijoren omenez.

Urte horretan ere izen aldaketa izan zen eta gaur egunera arte heldu zaigun *"Agrupación Musical San Roque – San Roque Musika Elkartea"* izena hartu zuen.

1992 urtean Jose Luis Montalánek zuzendaritza utzi zuen eta 1987tik zuzendariordea izandako Pedro Ignacio Adrián González urte horretatik gaur egunera arte musika bandaren zuzendaria da.

## ORAINA ETA ETORKIZUNA

1992. urtetik hona, Pedro Ignacio Adrián musika banda gazte honen zuzendari dugu. Banda gaztea baina eskarmentu handikoa dugu, batez beste 45 musikariz osatua eta bai aro bai estilo ezberdinetako obrak lantzen dituena.

Azken urteotan, Musika bandaren lana eta kalitatea herritik kanpo antzeman da. 1996 urtean "San Roke Musika Elkarteak", Euskal Herriko IV. Musika Banden arteko Lehiaketan parte hartu zuen. Lehiaketa hau Zallan egin zen eta Araba herrialdeak lehenengo aldiz igorri zuen talde ordezkaria.

1997 eta 1998an berriro hartu zuen parte, eta biotan bi mailetan parte hartzen zuten musika banda onenari "Azkoaga" sari berezia eman zion erakunde antolatzaileak. Harrigarria izan zen lehenengo mailaren bigarren postua lehiaketa bietan eskuratzea. 1997ko lehiaketaren finala Galizian, Katalunian, Euskadin, Hego Ameriketan eta Estatu Batuetan nazioarteko "Galeuska" kanalaren bitartez ikusi ahal izan zuten. Urte horretan bertan ere, eta lehiaketan lortutako arrakastari esker, Donostiako Hamabostaldi Musikalean jotzera gonbidatu zuten. 1998 urtetik aurrera lehiaketa honek izaera lehiakorra galdu eta erakustaldi bilakatu zen. Laudioko musika banda 1999., 2000. eta 2001. urteetako erakustaldietan jotzera gonbidatu zuten.

años fuera el *"alma mater"* de la Banda, dejando ya una Banda con una buena dosis de juventud y una academia funcionando con buen rendimiento.

Desde este año y hasta 1992 está como director José Luis Montalbán y como subdirector Pedro Ignacio Adrián. En esta época se graba un disco dedicado a Ruperto Urkijo, junto con los Arlotes y La Coral Santa Lucía.

Este mismo año la Banda cambia de nombre y se pasará a llamar *"Agrupación Musical San Roque – San Roque Musika Elkartea"*, nombre con el que llega a nuestros días.

Jose Luis Montalbán deja la batuta en 1992 y será el que era subdirector desde 1987, Pedro Ignacio Adrián González, el que coja la batuta hasta hoy en día.

## PRESENTE Y FUTURO

Desde 1992 Pedro Ignacio Adrián se ha encargado de llevar la batuta de esta joven banda, pero experimentada, de unos 45 miembros de promedio, con un buen equilibrio entre las familias instrumentales y un repertorio que no desprecia ningún estilo ni época.

Estos últimos años la banda ha conseguido un reconocimiento a su calidad fuera de Llodio. En 1996 la "Agrupación Musical San Roque" participa por primera vez en el IV Concurso de Bandas de Euskal Herria, celebrado en Zalla, siendo ésta la primera vez que Álava era representada en dicho concurso.

En 1997 y 1998 actúa también en dicho certamen recibiendo en ambas ocasiones el premio especial "Azkoaga" que otorgaba la entidad organizadora del certamen a la mejor banda participante de las dos categorías. Paradójicamente, en ambas ocasiones, se clasifica como 2ª en la 1ª categoría. La final del año 1997 fue retransmitida por el canal internacional "Galeuska" en Galicia, Cataluña, Euskadi, Sudamérica y Estados Unidos. Este mismo año y como consecuencia de su éxito en el concurso es invitada a participar en la Quincena Musical Donostiarra. A partir de 1998 el concurso pierde su carácter competitivo y se convierte en certamen. La Banda de Llodio actúa como banda invitada los años 1999, 2000 y 2001.

1998: actúa en el X Festival de Bandas de Getxo y en el VII Festival de Música de Karrantza, que se celebra en el inmejorable marco del auditórium de las cuevas de

1998. urtean, Getxoko X. Musika Banden jaialdian eta Karrantzako VII. Musika Jaialdian parte hartu zuen. Azkenengo honetan Pozalagua kobazuloaren auditorium zoragarrian egin zen.

1999 urtean *"Música para un festival"* izenburua daraman CDa kaleratu zen. Hainbat abestiren artean beste behin (Bilboko Musika bandak) baino grabatu ez den "Euskal Herria" obra grabatu zen. Ondoren leku ezberdinetan jo izan zuten, hala nola, Bilbon, Amurrion, Arrigorriagan, Orozkon, Plentzian… Bilboko Done Jakue katedraleko obren inaugurazioa egiteko gonbidatu zuen Bilboko Udalak; ekitaldi honetan kalejira egin ostean Hareatzako kioskoan kontzertu bat eman zuten, Bilboko Musika Bandaren ordezko.

2000. urtean, San Prudentzioren ospakizuna dela eta, Arabako Aldundiak Laudioko musika banda Gasteizen jotzera gonbidatu zuen, ETBn zuzenean ikusi zela.

Karrantzako Musika Astean parte hartu zuen; "Vista Alegre" zezen plazan Iker Javier Lararen alternatibako zekorketa pikatuan jo zuen; Euskadiko Musika Banden IX. Erakustaldian parte hartu zuen eta oso musika kritika onak jaso zituen; Naiarako jaialdi entzutetsuetan hartu zuen parte Euskadiren izenean Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin batera. Hauetaz aparte, Plentzia, Markina eta Amurrioko jaietan kontzertuak egin ziren, baita Basauriko hilabete musikalean ere.

Urte horretan bertan Laudioko Musika bandaren 100. urteurrena ospatu zen. Ekintza asko antolatu zen: Gasteizko udal musika bandaren kontzertua, Bilbo Sax Ensembleko kontzertua, "In Crescendo…" metal taldearen kontzertua, Musika bandaren argazki erakusketa bat antolatu zen, 100. urteurrena zela eta zigilu-marka bat egin zen eta Aitor Sarraldek idatzitako *Banda de Música de Llodio-San Roque Musika Elkartea, una banda centenaria* liburua argitaratu zen.

1999., 2000., 2001. eta 2002. urteetan Bilboko Musika Banden Erakustaldian parte hartu zuen.

2001. urtean, Barakaldoko Udal Musika Bandaren 100. urteurrena ospatzeko Laudioko Musika banda gonbidatu zuten, kontzertua Foru Plazan izanda.

2003. urtean, Bazkideen XXXI. Kontzertua zela eta, Algortako "Biotz Alai" abesbatzak San Roque Musika Elkartea gonbidatu zuen Getxo Antzokian kontzertu bat

Pozalagua.

1999: se edita un CD que lleva por título *"Música para un festival"* en el que entre otras obras se graba la obra "Euskal Herria", de la que sólo existe otra grabación (de la Banda Municipal de Bilbao) y se actúa en diferentes lugares como Bilbao, Amurrio, Arrigorriaga, Orozko, Plentzia... Somos invitados por el Ayuntamiento de Bilbao para inaugurar las obras de la catedral de Santiago de Bilbao, dando un pasacalle y un posterior concierto en el kiosco del Arenal como sustitutos de la Banda Municipal de Bilbao.

2000: la Agrupación Musical actúa en Vitoria-Gasteiz con motivo de la celebración de San Prudencio, invitados por la Diputación de Álava, siendo este acto retransmitido por Euskal Telebista en directo.

Participamos en la Semana Musical de Carranza, tocamos en una Novillada Picada en la Plaza de Toros de Vista Alegre en la alternativa de Iker Javier Lara; se acude a la IX Muestra de Bandas de Euskadi obteniendo muy buenas críticas musicales. Además realizamos conciertos en las fiestas de Plentzia, Markina, Amurrio, mes cultural en Basauri y Festival de Karrantza. Participamos en los prestigiosos "Festivales de Nájera" representando a Euskadi, junto a la Orquesta Sinfónica de Bilbao.

Este mismo año se celebró el Centenario de la Banda de Música de Laudio. La banda organizó una serie de actos: Concierto de la Banda Municipal de Vitoria-Gasteiz, Concierto del Bilbo Sax Ensenble, Concierto del quinteto de Metales "In Crescendo..." Se organizó una exposición fotográfica de la Banda, se editó un matasellos del centenario de la Banda y se publicó el libro escrito por Aitor Sarralde *Banda de Música de Llodio-San Roque Musika Elkartea, Una Banda Centenaria.*

En los años 1999, 2000, 2001 y 2002 participamos en el Festival de Bandas de Bilbao.

2001: es la banda invitada para celebrar el Centenario de la Banda Municipal de Barakaldo dando un Concierto en la Foru Plaza de esta localidad.

2.003: la Agrupación Musical San Roque ofrece un concierto en el Getxo Antzokia, invitados por el Coro "Biotz Alai" de Algorta, con motivo del XXXI Concierto de Socios.

2004: es invitada para abrir el desfile del Carnaval de

jotzeko.

2004. urtean Bilboko inauterietako desfilearen buru izateko gonbidatu zuten. 2004. eta 2006. urteetan ere Gasteizko Andra Mari Zuriaren omenezko jaietan jotzera gonbidatu zuten.

2005. urtean, Errenteriako Musika Banden XI. Erakustaldian parte hartu zuen, baita Donostiako Musika eta Dantza Eskolak antolatzen zituen udaberriko kontzertuetara ere.

2006. urtean Langraiz Okan kokaturik dagoen espetxearen antzokian kontzertu bat egin zuen. Urte berean, Amurrion elizako karriloi berria estreinatzeko beste kontzertu bat eman zuen. Oso esperientzia berritzailea izan zen zenbait partitura karriloiarekin batera jotzeko moldatu baitzen. Aukera hori bera baliatu zen, bestalde, Felipe Ainzen “Himno a Amurrio” obra estreinatzeko.

2007 urtean Zumarragako Musika Banden V. Erakustaldian hartu zuen parte. Geroago, urte horretan bertan, Oskorrirekin batera aritu zen, “Bandaband” izeneko kontzertuen barnean, kontzertu oso-osorik grabatuz.

2011. urtean Bilboko Musika Banden I. Jaialdian parte hartu zuen, BBK-k babestua era erakunde bereko Bilboko auditoriumean.

2012. urtean lehenengo aldiz bi kontzertu egin ziren bertsolariekin eta, bestalde, Naron (Galizia) herritik etorritako Musika bandarekin kontzertu bat egin zuen.

2013. urtean “Zamudioko Kamara Abesbatza”ren 25. urteurrenean parte hartu zuen, rock musika hutsez osoturiko errepertorioa joz, rock musika talde batekin batera. Urte honetan ere, Gabonetako kontzertu berezi bat izan zuten, estatu zein mundu mailan garrantzitsuenetariko abesbatza batekin, “Bilboko Abesbatza Elkartea”rekin hain zuzen ere. Kontzertu arrakastatsua izan zen, eta berau egiaztatzen duen grabaketa bat ere egin zen.

Azkeneko urte hauetan hainbat obraren estreinaldia egin du musika bandak mundu osorako, haien arteko garrantzitsuenetariko bat Joaquín Silgueroren “Sax Romantic” izanda.

Urtez urte musika eta kultura ezberdinetako taldeekin kontzertuak egiten saiatzen gara, Galiziar folk musikarekin nahastuz (Espalladoiro Taldea),

Bilbao. En los años 2.004 y 2006 somos invitados a actuar en las fiestas en honor a la Virgen Blanca, en Vitoria-Gasteiz.

2005: participamos en el XI Certamen de Bandas de Música de Rentería y en los Conciertos de Primavera organizados por la Escuela de Música y Danza de San Sebastián.

2006: damos un concierto en el Teatro del Centro Penitenciario de Nanclares de Oca. Ese mismo año se da un concierto en Amurrio para inaugurar el “nuevo carrillón” de la Iglesia, una experiencia novedosa pues adaptamos las obras para hacer el concierto de forma conjunta con el Carrillón. En ese concierto también se estrenó para la ocasión la obra de Felipe Ainz “Himno a Amurrio“.

2007: participamos en el V Alarde de Bandas de Música de Zumarraga. Este mismo año actuamos conjuntamente con el grupo Oskorri dentro de sus conciertos “Bandaband”, siendo grabado este concierto en su integridad.

2011: se participa en el I Festival de Bandas de Bilbao patrocinado por la BBK en el auditórium de la BBK en Bilbao

2012: se hacen por primera vez dos conciertos con bertsolaris y recibimos la visita de la Banda de Naron (Galicia), con la que dimos un concierto conjunto.

2013:se participa en el 25 aniversario de la “Coral de Cámara de Zamudio”, tocando en esta ocasión un repertorio exclusivo de música rock junto a un grupo de música rock Este mismo año 2013 ofrecemos un concierto de Navidad junto con una de las masas corales más importantes del Estado y del mundo la “Sociedad Coral De Bilbao”. El Concierto fue un éxito total y además se hizo una grabación que así lo atestigua.

Durante éstos últimos años se han estrenado con carácter mundial varias obras por ésta banda, siendo una de las más importantes “Sax Romantic” de Joaquín Silguero.

Cada año seguimos intentando superarnos y realizar conciertos conjuntos con otro tipo de formaciones, fundiendo la banda con la música Folk Gallega (Grupo Espalladoiro), con el flamenco (José Manuel Florido), conciertos con txistus (Banda Municipal de Txistus de Barakaldo), haciendo conciertos exclusivos de música

Flamenkoarekin (Jose Manuel Florido), txistuekiko kontzertuak (Barakaldoko Txistu Udal Banda) eta euskal musika hutsez osoturiko kontzertuak, txalaparta, Nafar gaita, txirula, txistua, alboka, trikitia eta teklatua bezalako musika tresnak erabili dituelarik. Musika tresna hauek guztiak eta gainera "Andere" abesbatza, "Urduñako Abesbatza Elkartea" eta "Orozkoko Agate Deuna Abesbatza", kontzertu bakar batean elkartu ditu musika bandarekin batera, 2011n Laudion izan zen Araba Euskaraz jaian. Eskualdeko hiru abesbatza gure bandarekin batera. Hainbat alditan rock musika jo egin da eta honetarako teklatua, bateria, baxua eta gitarra elektrikoa erabili dira. Musikari bakarlarientzako zein Banda Sinfonikorako prestaturiko hainbat kontzertu egin da, urtero gutxienez bat egitean da non musikari bakarlarientzat zein musika bandako kideentzat sekulako zailtasunak dituzten obrak jotzen baitira. Era berean Ensenbleetarako eta Banda Sinfonikorako bereziki pentsaturikoak izaten dira, esate baterako "Bilbo Sax Quartet"-ekin batera eginiko umeentzako kontzertu didaktikoa, euskal dantzekiko kontzertuak… Mazzantini Klubak antolatzen duen kultur astearen barruan izaten den urteko kontzertua aipatzekoa ere bada, zaletu laudioarrak zain dituena.

Musika bandaren historiari so eginez, Laudion urtean zehar 42 emanaldi egin izan dituela ikus dezakegu. Gaur egun, eta Udaletxearekin egindako hitzarmen batean oinarrituta 27 egiten dira, hauetatik 14 kontzertuen garaietakoa izanik.

Urte hauetan zehar Laudio, Orozko eta Amurrioko zezen ferietan parte hartu izan du. Hainbat alditan Bilbo eta Lermako zezen plazetan ere parte hartu izan du.

Lan handia egin duen Musika banda dugu aurrean, eta etorkizuna hobea izan liteke guztion semea balitz bezala zainduz gero. Berez laudioar guztion musika banda da, errepertorio ezberdinak jotzen dituena eta etengabeko eraberritze prozesuan murgildurik dagoena, artxibategian 6.000 obra dituena eta pixkanaka handitzen doana. Adibide bezala, azkeneko 22 urteotan kontzertuetan 1.500 obra berri jo izan dira.

